

Berandu da, baina...

**Maidier Iantzi
Goienetxe**

Gaztea nintzenean ez nien deus galdetzen. Orduan ez zitzaizkidan gai hauek interesatzen. Orain, gurasoak bizirik baleude, informazio pila bat galdetuko nien». Hala aitortu digu 36ko Gerran herritik bota zuten familietako baten semeak. Ondoan ditu garai hartan haurrak baziren ere, oroitzapenak bizi-bizi dituzten bi herrikide, bi ahizpa. «Atzo balitz bezala oroitzen naiz nola deitu gintuzten familiak plazara. Kontent-kontent nengoien igandetako arropa jantzi zidatelako. Bestak ziren eta bestetara gindoazela uste nuen», hasi da bietako bat konta-

tzen. Eta hortik aitzinera pasarte pasartearekin lotzen joan dira bi ahizpak, elkarri hitza kenduz. Zenbat gauza dituzten barrenean!

Memoria historikoaren gaia ateratzen denean beti eztabaidatzen dut lankide batekin. «Hagitz berandu da», azpimarratzen du berak. «Zergatik ez dira omenaldi eta elkarrizketak lehenago egin?». «Bai, baina... –azaltzen diot nik–. Beldur handia egon da. Gainera, herri ttipietan denek ezagutzen dute elkar, alde batekoek eta bertzeoek. Ondorengoek ez dute arbasoek egindakoen ardurarik eta denbora behar izan da solasean hasteko».

«82 urte pasatu dira, e, 70eko hamarkadan jada 40 urtetik gora zituzten emakume horiek eta galdetzen ahal zitzaaien», ekiten dio lankideak. Beti argudio berak erabiltzen ditugu, ez dugu behin ere eztabaida bukatzen. Baina gustatzen zait, interesgarria iruditzen zait, batez ere «zergatik ez da lehenago egin?» eta «zergatik orain?» galderen gibelean dagoena deskubritzen saiatzeko ariketa.

Ahizpek ere «zer iruditzen zaizue eginen dizueten omenaldia?» galdetu orduko bota dute: «Berandu da. Baina...», jarraitu dute, emozioa ezin ezkutatuta. •

Haurdunaldi subrogatua ala alokairuzko sabela?

**Xabier Mikel
Errekondo**

Kezka, eztabaida, irtenbidea eta legeen moldaketa lau hankako prozesu jarraitua aitzinera egingen duen gizarte osasuntsu baten bizkarrezurra da.

Haurra izateak/ez izateak erpin izugarri ditu eta guziek erantzun berehalakoa exijitzen dute.

Bada ahalmen ekonomikoaz baliatuta adopzioan hartutakorik edo ernalkuntza artifizialaren bidez lortutakorik, bide pribatu zein publikotik.

Bada haurrik izan nahi ez duenik eta bada bere sabelean izan ezin baina nahi duen emakumerik. Azken hauentzat ir-

tenbidea da haurdunaldi subrogatua. Ala alokairuzko sabelak dira? Zientifikoki ahal da eta juridikoki partaideak babestu litezke, baina etikoki? Nik argi dut haurra izatea desio soila baino gehiago dela, edo behintzat ez izatea bezain eskubidezkoa. Ezin duenari laguntzea zilegi da, legez behinik behin. Bestela, debeka daitezela *in vitro* ernalkuntza eta intseminazio artifizialeak...

Agentzien negozioa dela? Administrazioak kudea dezala %100ean. Legezkoa ez dela? Egokitu dezagun, batez ere alderik zaurgarrienak diren haurdunaldia eramanen duen emakumea eta hau-

rra babesteko. Emakumearen hautuari dagozkion eskubideengan egin behar dugu ahalegina eta asmatu, kontzienteki, prestatua eta borondatezkoa izan dadin, guraso izan nahi dutenek ordainduta, eta ezin badute administrazioak bermatuta. Esplotazioa da ekidin beharrekoa. Gizarte honetan merkantilizaziotik nekez egin dezake ihes inork ezertan.

Ondorioz, naturalki ugaltzeko ezina dutenentzat haurdunaldi subrogatuaren alde nago.

Eta etorkizunean haurdunaldia ume-tokitik at egingen balitz? •